

# DATUEN IZURRIA:

ZER ARI DA GERTATZEN  
GURE PRIBATUTASUNAREKIN  
PANDEMIA GARAIAN?



# SARRERA ETA ESKERRAK

## ANTOLATZAILEAK



## BABESLEAK

donostiasustapena  
fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN  
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA  
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoa  
Concejalía de Impulso Económico



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA  
POLITIKA SALA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro



## LAGUNTZAILEAK

aniza  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



DEBAGOIENEN  
MANKOMUNITATEA

eitb

elhuyar  
ezagutuz aldatzea

ekar

[esle]  
10º ANIVERSARIO  
ELKADKO TEKNOLOGIA LIBREKO  
ETA ERAGITZAILEKO  
ENPRESEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE EMPRESAS DE  
TECNOLOGÍAS LIBRES Y CONOCIMIENTO  
ABIERTO DE EUSKADI

GAIA  
INDUSTRIA DE CONOCIMIENTO  
Y TECNOLOGÍA APLICADA

hekimen  
EUSKAL HEDABIDEEN ELKARTEA

KRISTAU  
ESKOLA

LANGUNE  
HEZKUNTZ INDUSTRIEN  
ELKARTEA  
EUSKAL HERRIAN  
ASOCIACIÓN DE INDUSTRIAS  
DE LA LENGUA EN EL PAÍS VASCO

Mondragon  
Unibertsitatea



TEKS.

ueu  
udako  
euskal unibertsitatea

STM  
San Telmo Museoa

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

donostia  
kultura

# 2020 EUSKARABILDUA. ZERGATIK?

- Bizitza tokatu zaiguna presente izanik, teknologia burujabetza ulertzeko beste modu bat da, datuetatik eta horien kudeaketatik abiatuta.
- Gaiari buruz kontzientzia hartu eta jokabide berrietara abiatzeko abiapuntu izatea nahi dugu.

# DATUAK GARA



Digitalizatutako munduan datuak kontsumitzeaz gain, jaikitzen garen momentutik oheratzen garen arte eta lo gauden bitartean ere **datuak sortzen gabilta**, modu kontzientean edo inkontzientean.

# DATUAK PANDEmia GARAIAIN

- Pandemiak gure eguneroko jarduna oraindik eta gehiago digitalizatzeraz behartu gaitu:
  - Telelana gehiago egiten ari gara
  - Familiarekin bideo-deiak egitera ohitu gara
  - Ikasketa prozesu ugari telematizatu dira
  - Gure osasunaren mesedetan gure ibilbide eta kontaktuak arakatzeko ahalegina dago (Radar Covid aplikazioa)
  - ...
- Pandemia garaian gutako bakoitzaren datu kontsumoa handitu da, baina baita datu sorkuntza ere, maila pertsonalean zein profesionalean.

# NOLA SORTZEN DITUGU DATUAK?

- **Interneteko konexioak:** egiten ditugun bilaketak, kontsultatzen ditugun webguneak, elikatzen ditugun sare sozialak edo jarraitzen ditugunak...
- **Kontsumitzen dugun edukia:** Ikusentzunezko plataformek gure film edo serie gustukoenak ezagutzen dituzte adibidez
- **Geolokalizazioa:** Mugikorra gainean daramagu etengabe eta gure ibilbide geografikoa erregistratzen doa
- **Hodeiko biltegiak:** Hodeian gordetzen dugun dokumentazioa, argazkiak eta bestelako materiala
- **Gure gorputzeko datuak:** Ordulari adimendunek eta mugikorrek gure bizi konstanteak neurtzen dituzte, esna gaudenean, kirola egiten dugunean, lo gaudenean...

# DATU SORTZAILE IZATETIK PRODUKTU IZATERA

- **Enpresa pribatuek** gutako bakoitza hobeto ezagutzeko informazioa daukate, neurrira egindako eskaintzak helarazteko.
- **Esparru sozio-politikotik** ere baliatzen dira datuak.  
Trump-en garaipenean zer eragin izan zuen Facebook-ek? 50 milioi erabiltzaileen datuak erabili zituen Cambridge Analytica enpresak, erabiltzaileen bozka jokaera aztertzeke eta ondoren eragiteko. Enpresa berak Brexit-aren aldeko Vote Leave kanpaina ere parte hartu zuen.
- **Esparru ekonomikotik** ere.  
Cracked Labs ikerketa institutu independentetik egindako ikerketa baten arabera, Lenddo, Kreditech edo ZestFinance bezalako erakunde finantzieroez mugikorretako, sare sozialetako edo interneteko bilaketetako informazioa baliatzen dute pertsona bati kreditua eman edo ez erabakitzeke.

# HAUSNARKETARAKO GELDIALDIA

Orain arte errealitatearen deskribapen bat egin dugu, baina hortik abiatuta Euskarabilduan honako oinarri hauen gainean hausnarketarako geldialdia egin nahiko genuke:

**Datuen jabetza eta pribatutasuna**

**Datuen kudeaketa eta desberdintasun sozialak**

**Hezkuntza: Etorkizuneko belaunaldiak zer ari dira ikasten?**

**Datuen burujabetza: Geure datuen kudeaketa posible al da?**



# DATUEN JABETZA ETA PRIBATUTASUNA

Guk sortzen ditugun datuen jabeak garela ahazten zaigu, datuak geureak direla eta datu horiekin zer egin erabakitzeko eskubidea izan beharko genukeela.

Ez dugu ahaztu behar maila sozialean zein pertsonalean pribatutasun eremu bat izateak pentsamendua sortzeko egitura sortzea ahalbidetzen duela eta ondorioz badira hainbat eskubide soilik bermatzen direnak pribatutasuna baldin badago.

Algoritmoek nahi duzuna emateko gaitasuna dute, baina mundu ikuskera anitza jasotzen ari garen ustearekin, pentsamendu bakarrera joateko arriskua daukagu.

# DATUEN KUDEAKETA ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK

Datuen kudeaketari buruz ari garela, ez diegu soilik pribatutasun eta segurtasun gaiei erreparatu nahi, arreta eskaini nahi diogu baita ere ondorio sozialei.

Javier Sanchezek dio, datuen kudeaketak, algoritmoek eta adimen artifizialaren hainbat sistemek gizarte desberdintasunak (arrazazkoak, generozkoak edo ekonomikoak) areagotzen dituztela.

Adibidez, autobusen kudeaketa hobetzeko helburuarekin mugikorretako datuak erabili daitezke, baina zer gertatzen da smartphone-rik ez dutenekin? Horiek diseinatutako garraio soluziotik kanpo geratuko dira eta segur aski horiek dira garraio publikoa gehien behar dutenak.

## Etorkizuneko belaunaldiak zer ari dira ikasten?

Pandemia garaian hezkuntza prozesuen digitalizazioak izugarritzko abiadura hartu du, gehienetan prozesu pedagogiko egokiekin lotu gabe.

Baina gure haurren datuak noren eskuetan geratzen dira? Zer ari dira ikasten? Google, Drive eta Classroom erabiltzen?

Hori al da gaitasun teknologikoak eskuratzea? Ez al da hori gaitasun teknologikoak eskuratzeko ikuspegi murriztaile bat?

Hezkuntzaren estrategikotasuna = estrategia digital orokor, anitz eta kritiko baten oinarria

# DATUEN BURUJABETZA

## Geure datuen kudeaketa posible al da?

Argi geratu da informazioa boterea dela eta interes ugari daudela datuak ulertzeko, interpretatzeko eta horiekin jokatzeko.

# DATUEN BURUJABETZA

“Kontua ez da datuen erabileraren aurka jartzea. Datuekin informazioa lor daiteke, eta **jakintza sortu, erabaki berritzaileak hartu eta herritarrak ahaldundu, datuen jabetza herritarren esku mantenduta jendartearentzat balioa sortzeko**”.

(Iratxe Esnaola, Telesforo Monzon eLab-eko koordinatzailea)

# DATUEN BURUJABETZA

**Baina posible al da geure datuen  
kudeaketa egitea?**

**Nola?**

**EGITARAUA**

# ¿HACIA UN GRAN HERMANO PANDÉMICO?

**Gemma Galdón**  
(Bartzelonako Unibertsitatea eta Eticas Research & Consulting)

Datuen zaintzaren ikuspegi orokorra eta  
pandemia garaian gertatzen ari denaren analisia.





# DATOS Y JUSTICIA SOCIAL

**Javier Sanchez** (Data Justice Lab)

Datuen kudeaketak eragin ahal dituen  
desberdintasun sozialetan jarriko du begirada.



# DEFINIR, DEFENDER Y CONSTRUIR SOBERANÍA DE DATOS

**Marga Padilla** (Dabne kooperatiba)

Datuen burujabetzari buruz



# MAHAI-INGURUA: TEKNOLOGIA BURUJABETZA HEZKUNTZAN: GAUR EGUNGO PANORAMA, ALTERNATIBAK ETA AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK



Mikel Garcia (Argia)

Pedro Arreitunandia (Elgoibarko Makina  
Erreminta Institutua)

Diana Franco (Hezkuntzan ere Librezale)

Hezkuntza

# EUSKARABILDUAREN HELBURU HIRUKOITZA



1

Gaiaren gizarteratzea,  
kontzientziazioa eta  
ahalduntzea



2

Euskal Herrian ekimen  
berriak; persona eta  
erakundeen saretzeak  
eta harremanak abian  
jartzea.

3


Teknologia eta euskara  
batzea

# OHARRAK

- Asebetetze inkesta: <https://labur.eus/gBNOI>
- Streaming: Euskarabilduan, ARGIAN, EITBren webgunetan
- [jarraipena.euskarabildua.eus](http://jarraipena.euskarabildua.eus)
- Sare sozialak: [#euskarabildua20](https://twitter.com/euskarabildua20)  
- Hitzaldi guztien ostean galderentzat tarte izango da.
- Visual Thinking: Uxue del Rio.
- Jardunaldien ondoren materiala bidaliko da postaz.
- Ziurtagiria behar duenak eskatzeko aukera dauka.
- Euskarabilduako bideo guztiak: [peertube.euskarabildua.eus](http://peertube.euskarabildua.eus)

# JARDUNALDIEN ONDORIOAK

Jardunaldien ondorioak bilduko ditugu eta azaroaren 18an estreinatuko dugun 'Hodeia ez da existitzen' podcast kanal berriaren horren berri emango dugu.



**HODEIA EZ DA EXISTITZEN**  
iametza podcast

